

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aldude



Aurkibidea

Udalerria: Aldude

Sarrera



Aldude Nafarroa Behereko udalerria da, Baigorri-Ortzaize eskualdean kokatua. Herri hauek ditu mugakide: ekialdean, Banka; hego-ekialdean, Urepele; mendebaldean Baztan (Nafarroa); eta; hego-mendebaldean, Erroibar (Nafarroa).

- **Biztanleak:** 355
- **Euskaldunak:** %52,78

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **24**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **24**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoa
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Leon Arambel (1932)



Iputxaineko nagusia. Txikitan kontrabandan amarekin ibilitakoa, Elizondora gordezka joaten baitziren etxeko mozkinak saltzera, egunaz, karabineroak saihestuz. Gaztaroan ere ibili da kontrabandan, eta Alemanen okupazioa ere bizi izan du. Baina bere biziko etaparik garrantzitsuena Estatu Batuetan artzain egotea izan da. Ez du besteek bezainbat sufritu, nahiz eta anaia hegazkin istripuz hil zitzaion, Amerikara zihoala.

Franxoa Bidaurreta (1942)



Esnazuko Ximunenea baserrikoa, guraso biak Aldudekoak zituen (aita Nevadan egona zen artzain, 13 urtez, esposatu aurretik). Lau anaietan gazteena, Esnazuko eskolan ibili zen 14 urtera arte. Ondotik basoan pagoak ebakitzen eta baita kontrabandan ere. Frantziako armadan soldadu egotea egokitu zitzaion, Marsellan. 1964an Kaliforniara joan zen, anaiarengana (hura aurretik joana zen, Bakersfieldera artzain, eta San Franciscon enpresa txiki bat zeukan). Anaiarekin lan egin zuen denbora batez eta gero Coca Cola konpainian hilabete batzuek. Hamar urtean konpainia handi batentzat aritu zen (bideak, azpiegiturak, etxeak... egiten zituen). Han ikasitakoarekin bere negozioa ipini zuen. Mountain Homen (Idaho) jaioa zen jatorri bizkaitarreko emakume batekin esposatu eta bi seme-alaba izan zituzten (alabak euskara ikasi zuen, Euskal Herrira joanda). Pantxoa San Franciscoko euskal etxearen sortzaileetako bat da eta elkarteko zuzendaria ere izana da. Pilota irakaslea izan zen bertan, besteak beste; mus txapelketetan ere ibilia da. Oso bertsozalea da. Petaluman (Kalifornia) bizi izan da azken urteetan.

Piarre Erramuzpe (1927-2019)



Alduden jaioa. Gurasoak Bankakoak ziren sortzez, baina zortzi seme-alabekin Aldudera joan ziren. Hogeitaz urtera arte Alduden bizi izan zen Piarre. Hamalau urte zituenetik mutil (morroi) ibili zen. Gero soldadu joan beharra izan zuen eta 14 hilabete egin zituen. Gurasoak pobreak ziren eta Ameriketara joateko erabakia hartu zuen. 1949an joan zen Wyoming-era, artzain lanera. Sei urteren buruan Aldudera itzuli zen. Ezkondu eta herrian jarri zen bizitzen. Hainbat lanbidetan aritua. Kantari ona. Baigorri bizi zen elkarriketa egin ziotenean.

Adrien Gaxitegi (1921-2018)



1921ean sortu zen Aldude Beraineko Bordan. 12 urtetan joan zen sortetxetik, apaizgoan sartzeko. Lazkaoko komentuan egin zituen lehen ikasketak, eta laborantza ingeniariatza ikasi zuen ondoren, Frantzian. Ikerlan garrantzitsua egin zuen 1950eko hamarkadan, Amerikara joan ziren euskal artzainez. Hango sufrimendua ikusi zuen, gizonak mututurik edo erotegian. Elkarriketa egin zitzaionean Belloceko fraidetegian zegoen, Ahurtin, bertan egindako laborantza lanen zaintzen. Aturri bazterreko herri horretan hil zen Adrien 97 urtetan, 2018ko ekainaren 20an.

Henri Lubet (1936)



Aldudeko okindegiko semea. Txikitatik, ogi banatzen aritu da, eta aitaren segida hartzekotan zen. Baina harekin haserretu eta, Azkainera joan zen bizitzera. Bertan 24 urtez bizi izan ondoan, etxea saldu, eta Urruñara joan zen bizitzera, emaztearekin. Arrantzan maite, baina ehizan ere bai, Aldudeko sareetan aritu izana da. Oroz gainetik, pilotazale amorratua. Pilotan ere biziki trebea zen gaztetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Soldadu alemaniarrek euskaraz janaria eskatzen

- **Hizlaria(k):** Arambel, Leon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan
- **Erref:** ALD-002/010
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:26:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- **Laburpena:** Gerra denboran Alemaniako soldaduak (austriarrak omen ziren gehienak) janari bila etorri ohi ziren bordara. Behin, "arrautza eta xingarra" eskatu zuten euskaraz. Aratxea ere saldu zieten beste behin, nahiz eta debekatuta egon, hobeto ordaintzen baitzuten.

Transkripzioa

- Ta gerra denboran alemanen beldurrik ez zinuten sobera?
- Ez, ez, ez. Nik kusi tut ta gure sukaldian xingarrai eta arrautzai galde iten. Ta ba sei-zazpi aleman xingarrei ta arrautzei eskuaraz erraiten, e?
- A bai?
- Ta beti ateik gero pagatzen zuten e!
- A pagatzen zuten?
- A ba ba ba.
- Xox gehiago bazuten [...] hek? Badakizu hemengo guardak eta?
- A ba ba. Bistan da bazuten... sosa, alemanek bazuten sosa. Oroitzen niz Aratxia're saldurik.
- A bai?
- Ta ez zela libro e ordian. requisieneko baitzeon. [...] ta gu gordeka, alemaner saldu, hek pagatzen baitzuten gehiago.
- Zer ziren soldadu xingleak? Ez ziren... bigarren munduko...
- Hemengo... erraiten zuten autrichienneanoak zirela. Bestik baino bestia...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aldudetik Bankarako ubidea, duela ehun urte egina (ALD-002/002)

Leonen etxe ingurutik hondarra ('sablea') atera zuten Bankako ubidea egiteko, 1903an. Harrezkero ere atera izan dute. Hondar horrekin parrapinak (baldosak?) egiten jarduna da bera ere, hargin bati laguntzen. Ongi egin zuten nonbait ubidea, ehun urte igaro arren egoera onean baitago.

2. Garai batean gazta ez zen saltzen (ALD-002/003)

lputxaine baserria baserri ona zen. Behiak, ardiak eta alorrak zituzten. Gazta ere egiten zuten. Ez zen saltzen garai hartan, baina zurginari ordaintzeko eta horrelakoetarako erabiltzen zen. Irisarriko merkatura eramaten hasi zen herritar bat, eta horrela ikasi zuten bidea beraiek ere.

3. Artoa biltzen laguntzen 'ilarraren' truke (ALD-002/005)

Laborantzaz gain, hargintza eta zurgintza ziren ogibide bakarrak herrian. Eta zurgina bera ere larri ibiltzen zen. Honen familiak laborariei artoa biltzen laguntzen zien, ilarrak (babarrunak) beraientzat izatearen truke.

4. Oilaskoak eta arrautzak saltzera Elizondorat (ALD-002/006)

Elizondoko azokara joaten ziren garai batean. Oilaskoek eta arrautzek estimazio handia zuten. Oihala erosten zuten eta gero herria josten zuen jostunak. Denetarik erosten zuten etxerako. Orduan laborarien jeneroak diru egiten zuen. II. Mundu Gerla garaia zen.

5. Karabineroek harrapatu, egurtu eta jenero guztia kendu (ALD-002/007)

II. Mundu Gerla garaia zen. Behin karabineroek harrapatu zuten Leon Elizondoko azokara zihoala. Bizkarra berotu eta zeraman oilasko eta arrautzak kendu zizkioten. Karabineroek jango omen zuten dena. Kinto-ko (Quinto Real) karabineroak are okerragoak ziren.

6. Auritzera arno bila kontrabandoz (ALD-002/008)

Auritzera joan ohi ziren kontrabando bila. Hotel Burguete-n jan ohi zuten zerbait. Behin bakarrik galdu zituzten zahagiak, karabineroek gauerdian tiroka hartu baitzituzten. Aldudeko hiru tabernak Auritzetik kontrabandoz ekarriko arnoz hornitzen ziren. Horrela irabazten zuten diru pixka bat.

7. Emazteak "kontrabandoan" (ALD-002/009)

Auritzetik arnoa ekartzen zuten. 11 urterekin, Elizondora joaten zen amarekin etxeko gauzak saltzera. Auzoko beste emazte bat ere joan izan zen eurekin. Egunez joaten ziren Elizondora, gauez Auritzera. Ogi handi bat eramaten zuten Auritzetik hurbil zegoen txabolara. Aitzinean, Leonen aita preso hartu eta Iruñealdea eraman zuten .

8. Alemanen buruzagi beltza garbitu Bidarra aldean (ALD-002/011)

Behin ama erditzeaz zegoela, Leon eta arreba medikuari telefonatzera zihoazen jendarmeriara. Bidean soldadu alemanak irten zitzaizkien otso-zakur handi batez eta beldur handia pasatu zuten. Gauez ezin zen kanpora irten. Jefeak, beltza, oso gaiztoa zen. Handik denbora batera tiroz hil zuten Bidarra aldean.

9. Leonen anaia hegazkin istripuz hil Ameriketara zihoala (ALD-002/015)

Aldudar asko joaten zen Ameriketara artzain. 1949an bost euskaldun hil ziren hegazkina erorita, tartean Leonen anaia eta beste bi aldudar. Parisera joan behar izan zuen Leonek anaia identifikatzera. Arropatik ezagutu zuen.

10. Hamabi urtez artzain Kalifornian (ALD-002/016)

Leon artzain joan zen Ameriketara 1950ean. Parisen hegazkina hartu eta San Franciscora, New Yorken eskala eginda. Eskualdeko beste batzuk ere joan ziren.

11. Oso haragi gozoko bildotsak hazten ziren Kalifornian (ALD-002/017)

Hamabi urte egin zituen artzain Kalifornian. Udan garagar sail hondoetan bazkatzen zituzten ardiak. Gero arrantxoetan sartzen ziren. Azaro aldera mendira eramaten zituzten, orduan sortzen zelako belarra. Biziki belar ugaria eta fina. Oso haragi gozoko bildotsak hazten ziren.

12. Beroa, artzainaren etsai nagusia (ALD-002/019)

Bi mila ardi inguruko artaldea gobernatzen zuen. Lan erraza omen zen, beroa etsai nagusia.

13. Hozkailua, biziaren erdia artzainarentzat (ALD-002/021)

Arestian ez zuten hozkailurik eta edariak pixa bezala geratzen ziren berehala. Arrautzak usteldu egiten ziren. Egun batez, nagusiak frigoa, hozkailua ipini zien artzainei eta hura biziaren erdia izan zen. Txerriki asko jaten zuten, nagusiek txerriak hazten zituztelako.

14. Belarrari ura bota behar paketatzeko (ALD-002/022)

Ardien gaitzez. Goizez ilunetan paketatzen zen belarra. Busti egin behar izaten zuten idorregia gera ez zedin.

15. Basakatuak eta koioteak artzainaren arerioak (ALD-002/024)

Koioteak eta basakatuak ziren artaldearen arerioak. Basakatuak bildotsik onenak erasotzen ditu beti. Errazak ziren harrapatzen arteen bidez.

16. Koioteak eta basakatuak harrapatzen (ALD-002/025)

Koioteak eta basakatuak harrapatzeko arteak nola prestatzen zituen. Bazen "koioteroa", gobernuak hartarako jarritako gizona. Leonek konpetentzia egiten zion. Arrainkiaz eta koiotearen pixaz eginiko amuaz harrapatzen dira erraz basakatuak.

17. Bizkaitarrekin gazteleraz Iparraldeko artzainek (ALD-002/028)

Bi aldudar bakarrik zeuden han, beste guztiak hegoaldekoak ziren. Gipuzkoarrekin eta nafar-euskaldunekin euskaraz mintzatzen ziren baina bizkaitarrekin gazteleraz, ez zutelako elkar ulertzen. Baziren euskaraz ez zekiten nafarrak (Auritze, Zilbeti eta abarrekoak), eta deseroso egoten ziren besteak euskaraz mintzatzen zirenean.

18. Sarako euskara politena (ALD-002/030)

Ingelesa ikasi zuen pixka bat. Nagusiak ohituak zeuden ingeles txarra konprenitzera. Zein den euskararik politena galdetuta, Sarakoa dio.

19. Maisua eta apaiza bortitzak izan zituen (ALD-002/031)

Eskola euskaraz izan balute, ez zuten frantsesa ikasiko. Azkar ikasi zuen faantsesez. Maisuak zigortu egiten zituen bai euskaraz egiteagatik eta bai beste edozergatik. Oso gizon bortitza zen, militarra izandakoa. Apaiza ere bortitza zen, katiximan belauniko edukitzen zuen usu.

20. Artileak diru egiten zuen garaia (ALD-002/034)

Zikeroak haragitarako ziren, baina hil bitartean ilea mozten zitzairen. Garai batean diru egiten zuen artileak.

21. Eguraldia aldatu da, lehen maiatzaren baterako artoa erneta izaten zen (ALD-002/036)

Lehen goizago irteten zen bazka mendian. Alorreko laborantza lanak ere goizago egiten ziren, maiatzaren baterako erneta egoten zen artoa. Orain, aldiz, lurra landu gabe egon ohi da askotan data horretan.

22. Elurra noiznahi gazte denboran (ALD-002/037)

Neguak bortitzagoak ziren lehen. Noiznahi egiten zuen elurra. Kloskak (zurezko oinetakoak) janzten zituzten herrira jaisteko. Gogoan du nola joan ziren behin lerroan Aldudera Eguberri Gaueko mezara. Gerla ondoan, 1946an-edo, metro beteko elurra egin zuen, eta Urepeletik Baigorriaraino garbitu zuten bidea ogia eta abar ekarri ahal izateko. Orduan suntsitu ziren erbi eta untxiak.

23. Udak idorragoak ziren lehen (ALD-002/039)

Udak idorragoak izaten ziren. Bere etxean pentzeak ureztatu egiten ziren. Eguberrietan, lehen zerria hildakoan, artzainak Irisarrira joaten ziren ardiekin negua pasatzera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com